



## TREBAKUNTZA 2012/10: ASKO, LUZE, HANDIA

Ahoz zein idatziz, sarritan txarto erabiltzen ditugu “asko”, “luze” eta “handia”. Nahastu egiten ditugu.

### AZALPEN OROKORRA

**Asko/gutxi:** ZENBAT galderari erantzuten diote. Izen zenbakarriekin edo neurgarriekin erabiliko ditugu: *Liburu asko/gutxi irakurri ditut.*

**Luze/labur, handi/txiki, gogor/leun:** hauek NOLAKOA galderari erantzuten diote, izen neurgaitzekin erabiltzen dira eta intentsitatea adierazten dute.

**Txarto:** \*Gose asko pasa dute. \*Min asko egin dit.

**Ondo:** Gose handia pasa dute. Min handia egin dit.

Hala ere, hemen emandako arauak ez dira beti betetzen. Horrela, **handi**-ren kontrakoa ez da beti **txiki**. Izan ere, zenbaitetan, **gutxi** erabiltzen da. Adibidez:

Honek kalitate GUTXI dauka.

Gaur lan GUTXI daukagu.

Egia esan, gogo GUTXI daukat.

**OHARRA:** asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

### OHIKO AKATSAK

1. \* *Aurkezpena aretoan izango da, frontoian hotz **asko** egiten du eta.*
2. \* *Denbora **askoan** egon zen arkitektoaren erantzunaren zain.*
3. \* *Proiektu honek Aldundikoaren antz **asko** du.*

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99

4. \* Idazkariak ez zeukan gogo **askorik** gai horren inguruko azalpenak emateko.

5. \* Haize **asko zegoen** Gorbeiaiko tontorrera heldu ginenean.

## ZUZENKETAK

1. Aurkezpena aretoan izango da, frontoian hotz **handia** egiten du eta.
2. Denbora **luzean** egon zen arkitektoaren erantzunaren zain.  
**Luzaro** egon zen arkitektoaren erantzunaren zain
3. Proiektu honek Aldundikoaren antz **handia** du.
4. Idazkariak ez zeukan gogo **handirik** gai horren inguruko azalpenak emateko.
5. Haize **gogorra zebilen** Gorbeiaiko tontorrera heldu ginenean.

\*\*\*\*\*

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

- Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)
- Posta elektronikoz: [bizkaia1@uema.org](mailto:bizkaia1@uema.org) (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

[www.uema.org](http://www.uema.org)

Donibane enparantza 1, 1.a  
48380 Aulesti  
Bizkaia  
94-627.91.95

Done Petri 14, behea  
20180 Oiartzun  
Gipuzkoa  
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra  
20.734 Azpeitia  
Gipuzkoa  
943-81.66.99